

Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko ikasleek Gradu Bukaerako Lanak aurkeztuko dituzte erakundeen ordezkarien aurrean

2015/06/15

Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko laugarren mailako ikasleek euren Gradu Bukaerako Lanak (GBL) aurkeztuko dituzte enpresa era erakundeetako ordezkarien aurrean, ostiralean, ekainaren 19an, Aretxabaletako campusean egingo den ekitaldi akademiko irekian. Ekitaldia baliatuko da banatzeko Kimu Berri sariak.

2014-2015 ikasturtean guztira 15 GBL egin dira Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Ikus-entzunezko Komunikazioa graduan; horietako batzuk, gainera, Goikolab komunikazio-berrikuntzarako laborategian gauzatu dira. Goikolaben garatutako proiektuek finantziak dute eta ikasleek diru-ordaina jasotzen dute egindako lanaren truke. Laborategiko partaideek, horrez gain, sorkuntza eta ekintzailatza munduko adituen formazio berezia ere jaso dute proiektuok modurik egokienean burutu ahal izateko.

GBL bakoitzean bi tutorek hartu dute parte: batetik, erakunde edo enpresako tutoreak, eta, bestetik, unibertsitateko tutoreak. MONDRAGON UNIBERTSITATEKO tutoreek, lanaren diseinuan parte hartzeaz gain, ikerketa akademikoaren eta alderdi praktikoan jorratutako lanen kalitatea bermatu dute. Erakundeetako ordezkariak, beriz, lanen alderdi praktikoan lagundu dute.

Aurtengo ikasturtean ere mota askotako lanak egin dira; esate baterako, kultur ondare ez-materialari buruzko dokumentala, ETBko saio batentzako hobekuntza-proposamenak, Debagoieneko herri-moneta sustatzeko komunikazio-plana edota eskualde horretako eskaintza turistikoa hedatzeko plana. Askotarikoak izan dira, halaber, proiektu horietan parte hartu duten erakunde eta enpresak: Eusko Jaurjaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, EITB, Udalbiltza, ISEA, Bilbo Hiria Irratia, Irrien lagunak, Bagara, Mondragon Lingua...

Egun horretan GBLen aurkezpen publikoa eta lanen depositua egiteaz gain, ekainaren 19ko bilkura baliatuko da Kimu Berri saria banatzeko. Hala, *pitching* erako aurkezpen laburrak baliatuta, Kimu Berrik saritu nahi ditu ikasturteko proiektu interesgarrienak. Kimu Berri lehiaketaren helburua da sustatzea ekintzailetasuna gazte eta ikasleen artean.



lazko edizioko partehartzaileak.